

B1 maila

Entzumena

EREDUA: **1**

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Entzumena	10	20	25 minutu inguru

ENTZUMENA

1. TESTUA

Jarraian, Euskadi Irratiko berri-saioa entzungo duzu. Guztira, **6 berri** entzungo dituzu. Aukeratu erantzun egokiena, berrian zer esaten den kontuan harturik. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **6 puntu**. Erantzun okerrengeatik ez da punturik kenduko.*

1. Zein da La Naval-en egoera?

- a) Ezin da okerragoa izan, itxi egingo dute-eta.
- b) Larria, baina bideratzeko modukoa.
- c) Ona, ziurtatuta dauka lana urte askotarako.

2. Nola arautuko ditu Donostiako Udalak pisu turistikoak?

- a) Zerrenda ofizialetan sartzera behartuko dituzte.
- b) Pisuen kopurua eta multen kostua zehaztuko dituzte.
- c) Zein portaletan eskaini pisuak erabakiko dute.

3. Nolako itzulera-operazioa espero da?

- a) Sei milioi pertsona mugituko dira errepideetan Espainian.
- b) Gurean, Euskal Herrian, ez da trafiko handirik espero.
- c) Bai Espainian, bai gurean, joan-etorri asko espero dira.

4. Zein langaberen kontratazioa bultzatuko du Nafarroako Gobernuak?

- a) Lanik gabe dauden 45 urteko pertsona guztiena.
- b) Denbora askoan lanik egin ez duten 29 urtetik gorakoena.
- c) Urtebetez edo denbora gehiagoz lanik egin ez duten 55 urtekoena.

5. Zer gertatzen da etorkinen datu ekonomikoekin?

- a) Gizartearen ustea eta errealitatea ez datozela bat.
- b) Eman baino gehiago jasotzen dutela etorkinek.
- c) "Ikuspegi" elkartearen datu ekonomikoak ez direla objektiboak.

6. Zer eguraldi egingo du?

- a) Atertu eta argitu egingo du, pixkanaka.
- b) Mendebaldean soilik egingo du euria, batez ere goizez.
- c) Aldaketarik ez tenperaturan, ez baita 15-16 gradutik jaitsiko.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN

2. TESTUA

Jarraian, Euskal Irratiko elkarrizketa bat entzungo duzu, “mezularia” saiokoa. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Aukeratu erantzun zuzena, zer esaten den kontuan harturik. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra erantzun-orriko laukietan.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **7 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

Adib.: 0) Norentzat da kazetariaren mezua?

- a) Lo dauden guztientzat.
- b) Entzule guztientzat.
- c) **Eskola-kirolarekin zerikusia dutenentzat.**

1. **Zer dio Munduko Osasun Erakundeak egindako ikerketak?**
 - a) Espero baino zabalduago dagoela gazteen gizentasuna.
 - b) Gazteen gizentasuna ez dela mundu osora zabaldu.
 - c) Gazte lodi asko dagoela nonahi.
2. **Zein herriren artean dago kontrasterik handiena sedentarismoan?**
 - a) Espainiaren eta Bangladeshen artean.
 - b) Bangladeshen eta Hego Korearen artean.
 - c) Hego Korearen eta Espainiaren artean.
3. **Zer da zailagoa ariketa gutxi eginda?**
 - a) Gure itxurarekin gustura egotea.
 - b) Pisu normal bat izatea.
 - c) Arazoei pisua kentzea.
4. **Zergatik daude gizen gazteak?**
 - a) Azken 15 urteetan sedentarioagoak egin direlako.
 - b) Kirolik egiten ez dutelako.
 - c) Oso gutxi mugitzen direlako.
5. **Zergatik dago inoiz baino lodi gehiago gazteen artean?**
 - a) Etxean egotea gustatzen zaielako.
 - b) Gaizki jaten dutelako.
 - c) Eroso sentitzen direlako kirolrik egin gabe.
6. **Zer gertatzen da familietan haurrak gizentzeko?**
 - a) Umeek parkeetan egon behar izaten dute gehiegi mugitu gabe.
 - b) Gurasoek ikuspegi okerra dute ariketa fisikoaren inguruan.
 - c) Denbora-faltak ohitura txarrak ekartzen ditu.
7. **Zer utzi du agerian ikerketak?**
 - a) Nerabeek ahaztuta dauzkatela osasun-kontuak.
 - b) Nerabearoa dela etaparik zailena gizentasunari begira.
 - c) Ez zaiola nahikoa garrantzirik ematen nerabeen osasunari.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN

3. TESTUA

Jarraian, Euskal Irratiko elkarrizketa bat entzungo duzu, “mezularia” saiokoa. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Aukeratu erantzun zuzena, zer esaten den kontuan harturik. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra erantzun-orrako laukietan.

*Erantzun zuzen bakoitzarekin **puntu 1** lortuko da. Denera, **7 puntu**. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.*

Adib.: 0) Nor da Mainer Alberdi Eka?

- a) Kontsumitzaile euskaldun bat.
- b) Euskal elkarte bateko buru edo presidentea.
- c) **Euskal Kontsumitzaileen Elkarteko abokatu.**

1. Zer egiten dute elkarteak *Black Friday*-a dela-eta?

- a) Aholkuak eman eta erreklamazioei erantzun.
- b) Aspaldian desfasatuta geratu diren kontsumitzaileei lagundu.
- c) Iragarki ezagunenez informatu.

2. Zer gertatzen da erosketekin *Black Friday* sasoian?

- a) Erosketek gora egiten dutenez, kontsulta asko izaten da.
- b) Kontsultak orain izaten dira baina erreklamazioak Gabonen ondoren.
- c) Eguna ezaguna egin denez, kontsultek behera egin dute.

3. Zein arazo dago aukerekin?

- a) Ez dago benetako aukera onik.
- b) Kontsumitzaileak ez ditu dendak konparatzen.
- c) Erosleak ez die prezioei jarraipenik egiten.

4. Nolakoa da Mainerrek aipatzen duen manipulazioa?

- a) *Black Friday* egunean apenas jaisten dira prezioak.
- b) Aurrez garestitutako produktuak merkatzen dira.
- c) Azken unean igo egiten dira berriz prezioak.

5. Zein ondorio izaten du “aurretiazko planifikazioak”?

- a) Jendeak goregi jartzen du gastuaren langa.
- b) Planifikazioa egiteak murriztu egiten du gastua.
- c) Hasiera bateko asmoek porrot egin ohi dute.

6. Zer erosten da, gehienbat?

- a) Premiazko gauza gutxi.
- b) Benetan balio diguten gauzak.
- c) Behar duguna eta beste zenbait kapritxo.

7. Zer gomendatzen du Mainerrek segurtasunari begira?

- a) Erosketak, ahal dela, aurrez aurre egitea dendetan.
- b) Online erostean, zenbait gauza kontuan izatea.
- c) *Cybermonday* egunean egitea erosketak, eta ez *Black Friday* egunean.

IDATZI ZEURE AUKERA ERANTZUN-ORRIAN